

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko apirilaren 10etik 16rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/12

- **HITZARMEN KOLEKTIBOA.** - Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den janari-pasten industrien X. hitzarmen kolektibo nazionala. **5755 xedapena - 38 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/04/14

- **Euskadiko Administrazioak. - EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** - Arabako ardoaren industria eta merkataritzaren sektorearentzako hitzarmen kolektiboa. **1125 xedapena - 23 págs.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/10

- **OSASUN MINISTERIOA. - Osasun neurriak.** - Akats-zuzenketa, honako agindu honena: SND/292/2021 Agindua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez osasun kontroleko neurriak ezartzen diren Frantziatik Espainiara lehorretik iristen diren pertsonentzat. **5651 xedapena - 1 or.**

2021/04/13

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Laneko neurriak. COVID-19a.** – 3/2021 Legea, apirilaren 12koa, lan esparruan, neurri osagarriak hartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko. **5771 xedapena - 9 or.**
- **Ohiz kanpoko neurriak.** - 4/2021 Legea, apirilaren 12koa, ordaindutako baimen berreskuragarri bat arautzen duena ezinbesteko zerbitzuak ematen ez dituzten inoren konturako langileentzat, COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko. **5772 xedapena - 8 or.**

- **Kapital sozietateak.** - 5/2021 Legea, apirilaren 12koa, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege-dekretuak onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina eta beste finantza-arau batzuk aldatzen dituen, sozietate kotizatueta akziodunen epe luzeko inplikazioa sustatzeko. **5773 xedapena - 53 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Tributuak.** - HAC/342/2021 Agindua, apirilaren 12koa, zeinak onesten baititu 234 erdua, "Zerga planifikazioko mugaz gaindiko zenbait mekanismoren informazio adierazpena", 235 erdua, "Merkaturatu daitezkeen mugaz gaindiko zenbait mekanismo eguneratzeko informazio adierazpena", eta 236 erdua, "Zerga planifikazioko mugaz gaindiko zenbait mekanismo erabiltzearen informazio adierazpena". **5780 xedapena - 18 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Tributuak.** - Ebazpena, 2021eko apirilaren 8koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Zerga Kudeaketako Departamentuarena, zeinaren bidez onesten diren aitorpenaren xede diren zerga planifikazioko mugaz gaindiko mekanismoetan esku hartzen dutenen eta parte hartzen dutenen arteko jakinarazpen-ereduak. **5781 xedapena - 6 or.**

2021/04/14

- **OGASUN MINISTERIOA.** - Laguntzak- HAC/348/2021 Agindua, apirilaren 12koa, zeinaren bidez zehaztu egiten diren autonomo eta enpresentzako laguntza zuzenak esleitzeko irizpideak, COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresen kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. tituluan ezarritakoa aplikatuta. **5866 xedapena - 4 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Presak eta urtegiak.** - 264/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, presa eta urtegien segurtasun neurri teknikoak onesten dituen. **5867 xedapena - 54 or.**
- **Ibilgailuak. Araudia.** - 265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, bizitza baliagarriaren azkenetan dauden ibilgailuei buruzkoa, eta maiatzaren 8ko 2822/1998 Errege Dekretuak onetsitako Gidarien Araudi Orokorra aldatzen duena. **5868 xedapena - 33 or.**

2021/04/15

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Katastroko informazioa.** - Ebazpena, 2021eko apirilaren 8koa, Idazkariordetza, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiaren

baterako 2021eko martxoaren 29ko Ebazpena argitaratzen duena. Horren bidez, arau teknikoak onesten dira, notario-dokumentuetan higiezin irudikapen grafikoa txertatzeko. **5949 xedapena - 10 or.**

2021/04/16

- **OSASUN MINISTERIOA. - Medikamentuak.** - Ebazpena, 2021eko martxoaren 30ekoa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, zeinaren bidez aldatzen den COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko funtsezkotzat jo diren medikamentuen zerrenda ezartzen duen 2020ko ekainaren 19ko Ebazpena, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazioko premiazko neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 19.1 artikulua xedatutakoaren arabera. **6048 xedapena - 4 or.**
- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA. - Balore merkatua.** - 1/2021 Zirkularra, martxoaren 25ekoa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, inbertsio zerbitzuen enpresen eta haien talde kontsolidagarrien, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileen eta inbertsio itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kontularitza-arauei, urteko kontuei eta finantza-egoerei buruzkoa. **6049 xedapena - 85 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/16

- **Gizarte Ekintza Saila.** - Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 22112/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 15koa; horren bidez berritu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoan eguneko arretarako gizarte zerbitzuen zentroak irekitzeko baldintzen erregulazioa.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUEN 2 ZK.KO MUTUA
HENAO, 26 - BILBAO